



# Erroteta

etxebizitza

Aldacrak:  
Ahozkoa: Erróteta

“... una casería titulada Erroteta... en el barrio de Sarría de la anteiglesia de Berriz... se compone en la planta baja de cocina zaguán, cuerdas y un adituamiento horno de pan cocer por el lado Norte, en el piso principal de cuatro cuartos, un departamento que fue cocina y el resto pajar, y encima camarote, mide un planta de trescientos veinte y seis metros y sesenta y tres decímetros. La Ferreira vieja, unida a la casa por el lado oeste de esta, que en la actualidad solo sirve de tejavana ó depósito de leña... dos tejabanos unidas situadas contiguas y hacia sur de la Ferreira vieja y casa... están destinadas a cuerdas sin distribuciones interiores...”  
DJE, 6/88 or. (1892)



43° 10' 57"

2° 35' 58"

Berriz Iruditan / T. Angoitia

Arrierreka ibaiaren urak aprobetxatzen zituen errota honen gaineko lehen aipu dokumentala Bizkaiko su-errodan aurkitzen dugu: *Roteta* (1704). Badakigu errota XVII. mendean jada martxan zegoela, horrela ikusten baita Valladolideko Kantzelaritzan topaturiko irudi batean. Izenak aldaketa txikiak jasan ditu dokumentazioan, eta *Roteta* (1857, BUA, Viv.), *Roteta* (1865, DJE, 1/ 185. or.), eta *Erroteta* (1910, BUA, RU.) izan dira aldaera bakarrak. Auzotarren artean ere, ahozko transmisioan *Erróteta* era erabilia izan da.

Askotan gertatzen den moduan, kasu honetan ere burdinola zegoen errotari atxikia. Olarentzat beharrezkoa zen ur-aldapara gorde badu ere, gaur egun errota izandakoaren hormak baino ez daude zutik tamalez. Horrelako erakinetan ohikoa den legez, bi isurkitako teilatua zuen. Harlangaitzezko hormak ditu, eta, tarteka, harlandua erabili zuten etxearen kantaletan, atartean eta leiho-ertz batzuetan, baita egurra ere beste hainbatetan.

toponimia

Izen gardena, itxuraz, baina azalpen xumea behar duena. Izenaren osagaiak argiak omen dira, errota hitz arrunta eta hainbat lekutan aurkitzen dugun -eta atzizkia. Baina zer esan nahi du-eta atzizki honek? Urtetan uste izan zen plurala zela eta deklinabidea zela jatorria. Euskaraz “errotak” esaten badugu, deklinatzean -eta tartekatzen dugu: Errotetara, Errotetatik, Errotetan... Baina errealitatea bestelakoa da eta hau askotan egia bada ere argi dago errota bakarra zegoen leku honetan azalpen horrek ez zuela inolako zentzurik, beste hainbat lekutan bezala eta atzizki hau lekua zela adierazteko erabiltzen zela. Gaztelaniaz ez dago horrelakorik baina itzuli beharko bagenu “el lugar del molino” moduko zerbait esan beharko genuke.